

# Milaka lagun elkartzeko erronkarekin dator aurten ere Sagarrondotik

Martxoaren 17, 18 eta 19an sagardoaren lurraldeko lau udalerritan izango da laugarren edizioa

Sagarrondotik laugarren edizioak bere ateak kasik irekitzen hasiak ditu. Sagardoaren kultura bultzatzeko jaialdi honetako egun nagusiak martxoaren 17, 18 eta 19a izango diren arren, urtarrilaren 21ean haren aurkezpena eta Benito Lertxundiren emanaldia izango dira Hernanin.

Sagardoare ugari dira barra-barra, txotx irekieraz geroztik, astebururo sagardoaren lurraldera agertzen direnak, edota antolatu ohi diren sagardo egunak direla medio. Hala ere, etorkizunari begira eta egungoari helduz, sagardoare «moda» huts edota folklorea-


ren parte moduan gelditzeko arriskuez arduraturik sortu zen orain lau urte Sagardoaren Kultura Sustatzeko Elkarteak. Sagardoaren kultura, kultura izaki, sustatzeko eta eraberritzeko helburuarekin jaiatu zen, lagun eta elkarte ugariaren parte-hartzearekin. Eta horrela jarraitzen du egun ere lanean, Sagarrondotik den eskaintza eta proiektu osoa parte-hartze horren esku jarritz besteak beste.

Dagoeneko guztia dute prestatuta antolatzaileek laugarren edizioarako, datorren martxoaren 17, 18 eta 19a, hain zuzen ere, egun nagusiak izango dituen Sagarrondotik 2006rako. Sagardoaren bueltan hiru egun horietan jende andana bilduko den arren, Sagarrondotik egitasmoa urte osoan zehar antolatzen diren ekitaldiez josten da. Horrela, Donostia Eguna igarotzearekin bat egingo da aurkezpen ofiziala, euskal musikan ezinbesteko erreferentzia bilakatu den Benito Lertxundi musikariaren emanaldiaz gozatzeko aukera



Sagarrondotik saioaren programazioaren barruan antolatutako sagardo lehiaketa.

## ALBERRO SAGARDOTEGIA



*Sagardo naturala*

Santa Barbara Auzoa 61 • Tf. 943 55 00 19  
Hernani

### Komentarioa: **Prest gaude!**

Dagoeneko lau urte igaro dira hainbat lagun eta elkarteren artean Sagardoaren Kultura Sustatzeko Elkarteak eratu eta abiarazi genduenetik, bai eta Elkartearen egitasmoetan nagusi den Sagarrondotik ekimena sortu zenetik ere. Lau urte oparo izan dira, baina oraindik ere, sagardoa eta bere bueltan biltzen den kultura egonkortzeko, indartzeko, sustatzeko eta, kultura oro bezala, eraberritzen joateko ahaleginak bikoiztu beharrean gaude. Baina, halaber, egiten diren ahalegin guztiak bide berean ezarri eta guztiok batera gurdil berari tiraka hasi beharrean ere. Izan ere, ezin dalteke esan deus egiten ez denik, baina, geure iritziz, indarrak metatu, batu, beharrean gaude sagardoaren aitzinean aritzen garen norbana, talde, elkarte zein instituzioek egiten dugun lana norabide berean jarritz eta are indartsuago bihurtuz.

Sagardoak eta bere jiran elkartzten diren egitasmoek jendartean beti izan duten eta merezi duten tokia eskaintzea guztion lana da. Herriar bakanetatik hasi eta instituzioetaraino eramane beharreko ardura eta lana. Hori deritzogu Elkarteko kideok eta ildo horretan dihardugu lanean. Baina sagardoa, gure zintzurretatik behera barrenak gozarazteraino iritsi baino lehen, prozesu zabal eta luze baten azken helmuga da, eta bitarteko zubi horiek guztiak ere indartu beharrean gaude. Nekazarien ezinbesteko lan preziatua, landaketa bera, sagastien zainketa, sagarren bilketa, sagardo zukuaren egitea, kalitateari so eginaz igaro beharreko prozesuak, txotx irekiera, sagardoaren inguruan biltzen den herri izaera bera... guztia dugu oraindik indartu, zabaldu, egonkortu eta garai berrietara egokitzeko eta usadioarekin eta etorkizunarekin uztartzeko erronka.

Ez gara, ez, gubid sagardoaren bueltan lanean aritzen garen talde eta elkarteak. Batzuk sagardogileenak, besteak sagardotegienak, humenak sagardoaren kalitateari dagozkionak, herri elkarteak, edota gurea bezala sagardoa bere osotasunean hartu eta bere nortasunean daraman kultura izaera lantzen diuten elkarteak. Guztiok gabilta sagardoarekin lanean. Guztion lana helburu nagusiago baten bidean uztargarri bilakatu eta txertatu behar dugulakoan gaude Sagardoaren Kultura Sustatzeko Elkartekideok. Eskua luzatua dugu, borondatea ere bai. Hemen gaude, hemen izango gara eta prest gaude! Sagardoaren kulturak behar eta merezi duelako, prest gaude!

Dani Plaza  
(Sagardoaren Kultura Sustatzeko Elkartearen lehendakaria)

izango den egun berean. Izan ere, Txotx denboraldiaren irekitzean jakinaraziko dituzte Hernaniko kiroldegian Sagarrondotik 2006ren nondik norakoak. Bertan, Benito Lertxundireñ emanaldiaz gain, orain arteko edizioak biltzen dituen Sagarrondotik bideoaren aurkezpena egingo da.

Sagarrondotik jaialdi erraldoiko musika emanaldiak martxoaren 17an, ostirala, hasiko dira eta biharamunean, larunbatean, beren segida izango dute. Nahiz eta aurtengo musika taldeen parte-hartzea oraindik ere sekretupeko aitxor gisa gorde, Sorkun, Cham-bao, THC eta Loquillo y Trogloditas taldeak, besteak beste, arduratuko dira bertaratuko diren milaka lagunengorputzak mugiarazteaz.

### Sagardo Eguna, Urnietan

Baina musika eskaintza itzelaz beste, hor izango da aurtren ere Astigarraga, Urnieta, Usurbil eta Hernaniko koadrilen arteko herri kirolen lehia. Nabarmendu behar da urtez urte gero eta jende gehiagoren parte-hartzea eta ikusmiralortzen dituen egitasmoa dela herri kiroleko lehia. Aurtengoa Urnieta udalerrian izango da, martxoaren 19an.

Herri kirolez gainera, Buruntzaldeako artisau, abeltzain eta nekazarien produktuak bilduko dituen azoka eta jada ohitura bihurtzen ari den txekor erretzea izango dira Urnietan. Bertaratzen direnek eztarria sagarraren salda bustitzeko aukera izango dute. Baina Sagarrondotik ez da hiru egunetan kontzentratzen den ekimena, eta maiatz aldera, beste ekimen batzuen artean, Euskal Herriko herrialde guztietako sagardogile eta saldak bilduko dituen Sagardo Eguna antolatuko dutela aurreratu dute Sagardoaren Kultura Sustatzeko Elkarteak, sagardoaren kalitateari eman beharreko garrantzia nabarmentzearen.

### Ibilbide sendoa

2003ko martxoan antolatu zuen SKSEk Astigarraga, Hernani, Ur-

nieta eta Usurbil-sagardoaren lurraldea osatzen duten lau udalerriak- hiru egunez sagardoaren inguruan busti zituen Sagarrondotik lehen aldiz.

Hurrengo edizio guztietan ezinbesteko oinarria izan da lau udalerrietan ekimenean presentzia. Hala ere, kontzertuek jarraitzen dute Sagarrondotik jaialdiko erreferentzietako bat izaten, eta negu eta udaberri artean izaten diren jaialdietako erreferentzia nagusi bihur-

*Kirol lehiaketak  
eta bertako  
produktuen azoka  
dira festaren  
beste ardatzak*

tzen lagundu dio horrek. Desmond Dekker musikari jamaikarra, The Wailers talde mitikoa, Raimundo Amador, La Polla, Kiko Veneno, Gari eta Kuraia gisako taldeak izan dira 10.000 lagun biltzen dituen karpa erraldoia musikaren bitartez hankaz gora jarri dutenak.

Baina jende andana biltzeko aukera ez dute soilik kontzertuek eskaintzen eta Sagarrondotik hori agerian uzten du behin eta berriz. 3.000 edalontzi baino gehiago sal-

du ziren Sagardo Mostra hartan elkartutako jendetzak baieztatu zuen hori lehen urtetik. Profesionalen arteko pilota partida ikusgarriak, Sagardo Eguna, Nafarroa, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako artisauen eta produktuen azoka, herri kirolak, herri bazkari mundiala, haurrentzako emanaldiak, folk kontzertuak... Indartsu etortzen da urtero Sagarrondotik eta indartsu erantzuten dio jendeak urtero egingandako eskaintzari.



Kontzertuak dira sagardoaren inguruan antolatutako festaren beste ezaugarrietako bat.

LM. Martinez

*Fruitu ederrenak neguko eguzkia gordetzen du eta urre kolorea jartzten zaio, disaliratsua, hala, gure tradizio gozoari eusten diogu, gure sagardoari.*

**SAGARDOA**  
Martindegi auzoa, 29 - Tel. 943 555851  
HERNANI  
*Sidra Natural*